
2.SAIOAN JASOTAKO OHARRAK (2017-03-07)

HELBURUAK ETA BIDEA ADOSTEKO ARIKETA

Lehen saiotik ateratako helburu eta lan-ildoen proposamena eztabaidatu dugu eta hauek dira taldeetan jasotako iritziak:

Elkarlana, parte-hartzea eta inplikazioa

- Aurretik ezarritako dinamikak mantendu beharko genituzke → ez da gehiegi lortzen.
- Jendearen parte-hartzea bultzatu behar da.
- Jendearen inplikazioa lortzean dago gakoa. Nola?
- Kultura Kalean ekimena da jendearen inplikazioa bilatzen duen formatu bakarrenetakoa. Hasieran denok batera gauza desberdinak egiten genituen, baina orain pixka bat bakoitzak berea egiten du.
- Gazteen inplikazioa oso txikia da gaur egun.
- Elkarlana eta heziketaren lan-ildoak elkartu daitezke. Elkarlana eginez hezi egiten da.
- Elkarlana bultzatzeko jasotako ideiak onak dira, positiboak!

Kultura Batzordea

- Herriarentzat aztertu beharreko gauzak landu.
- Herri guztirako erabakiak guk hartzen ditugun sentrazioa. Jende desberdina inplikatu beharra.
- Dinamismoa bultzatu.
- Jende berria erakarri → jende hori kulturgintza egitera bultzatu.
- Elkartzeko epe luzeagoetara pasatu: jendea erakarri dezake.
- Aldiro formatu desberdina eman: bakoitzak egiten dituenak azaldu bileran, lanak... Gaur egungo formatua apurtu: eragile ona izateko askatasunarekin jokatu.

Komunikazioa

- Komunikazioa da gakoa.
- Komunikazioa ez espresuki aipatzen eta agertu beharko litzateke. Komunikazioarekin hainbat emaitza lortu daitezke: elkar ezagutza handiagoa, koordinazioa, heziketa...

LAN-ILDOEN EDO EREMUEN ANALISIA

Herritarren inplikazioa kultur eskaintzan (eskaintza herritarren beharretara eta nahietara egokituz)

INDARGUNEAK	AHULEZIAK
<ul style="list-style-type: none"> - Herritarrak gu gara (Kultura Batzordekoak). Gure beharrak asetzeko nahia adierazten dugu. - Kultur talde mordoa dago --> herritarrak talde horietan daude, eta beraz, herritarrengana iristeko erraztasuna dugu. - Jai Batzordean parte hartzen duten talde aktibo ugari dago herrian: Xaxau, Erraldoi Taldea... 	<ul style="list-style-type: none"> - Herritarren beharrak eta nahiak ez ditugu ezagutzen; herritarrek beraien nahia kanalizatzeko biderik ez dago. - Kultura Batzordean eragile eta ordezkari gisa egoten gara. Pertsona gisa parte hartzea falta da; herritarren edo publikoaren iritzia. - Xaxau, Erraldoi Taldea... badaude hainbat talde Jai Batzordean, baina kultura mailan gehiago inplikatzeko falta zaie, adibidez, Kultura Batzordean. - Udalak batzuetan, lagundu beharrean, oztopoak jartzen ditu. Herriarekin kontaktua falta zaio. - Kultur mugimendu estandarretik kanpo ez dago inplikaziorik. - Sortzaile berriak bultzatzeko modurik edo erraztasunik ez dago: ideia berriei elkarlana eta laguntza, gertutasuna, erraztasuna... (Batukada kasu) - Bergarako kultur eragile asko, Gaztetxea adibidez, Kultura Batzordetik kanpo dago. Ez du herri mailako inplikazioan laguntzen. - Gaur egungo dinamikarekin gazteria inplikatzeko zailtasunak.

LAN-ILDOA: Kultur eragileen arteko elkarlana

INDARGUNEAK	AHULEZIAK
<ul style="list-style-type: none"> - Kultur talde asko daude, potentzialtasun handia dutenak. - Ahozko komunikazioak oraindik funtzionatzen du. - Hainbat elkarlan praktika dauzkagu herrian: <ul style="list-style-type: none"> o Jaien antolaketa o Kultura kalean o Ibaiaren garbiketa - Inguruko herrietan ere kulturgintza indartsu dago, talde ugari dago. - Bergara erreferentea da hainbat herrirentzat. 	<ul style="list-style-type: none"> - Taldeen arteko komunikaziorik ez dago. - Ez dugu taldeek elkar ezagutzen. - Hainbat talde falta dira Kultura Batzordean. - Inguruko herriekin koordinaziorik ez dago. - Taldeek antolatutako ekintzen eta ekimenen difusioa ez dugu ondo egiten.

LAN-ILDOA: Komunikazioa

INDARGUNEAK	AHULEZIAK
<ul style="list-style-type: none"> - Herritarrengana iristeko bide edo kanal asko daude: prentsa (Goiena), TB (Goitb), Udaletik triptikoa hileru... - Eragileen arteko komunikazioa erakusketa bidez lantzeko aukera. 	<p>Eragileen arteko komunikazioa:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Talde kohesiorik edo talde bat izateko sentipenik ez daukagu Kultura Batzordean. - Kultura Batzordearen bileretako asistentzia ez da ona. <p>Herritarrekiko komunikazioa:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ez dugu lortzen herritarrek kultur eragileak ezagutu eta euren berri jakitera. Kanalak izan arren, taldeen atzean dagoena ezagutaraztea ez dugu lortzen.

LEHENTASUNAK: KEZKA SORTZEN DIGUTEN GAIAK

Analisi tauletatik bereziki kezka sorrarazten diguten ahulezien aukeraketa egin dugu:

- Kultur talde eta eragileen arteko koordinazioa.
- Elkar ezagutza: talde bakoitzak egiten duenaren edota jardueraren ezagutza.
- Sortzaile berriak sortu eta bultzatzeko moduak eta erraztasunak.
- Herritarren beharrak ez ditugu ezagutzen. Eragile asko Batzordetik kanpo dago, eta herri mailako inplikazioa ere baxu dago, estandarretik kanpo.
- Kultur eragileen arteko komunikazioa: Kultura Batzordeetako asistentzia.
- Herritarrekiko komunikazioa: herritarrek ez dituzte kultur eragileak ezagutzen edo ez gara eurengana iristen, kanalak eta bideak eduki arren.

Dinamikez aparte jasotako hainbat ideia:

- Komunikazioa helburu duten erakusketak antolatu: kultur taldeen informazioa eman, burutzen dituzten dinamikak, lokala, jarduerak... Taldeen atzean zer dagoen ezagutarazi.
- Talde kohesioa landu Batzordean: bilera dinamikoak, dinamika eta ariketak...
- Elkarlana:
 - Eragileen artean
 - Herritarrekin elkarlana eta herritarren parte-hartzea
- Komunikazioa:
 - Eragileen artean
 - Herritarrei begira